



Soinu txikiaren maisua handia



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua





MATRIKULA: UZTAILAREN 11TIK 15ERA

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze lan elektromekanikoa

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak

- Automatizazioa eta robotika industriala
 - Mekatronika industriala
 - Fabrikazio mekanikoko produkzioa programatzen
 - Web Aplikazioen Garapena
 - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- ARRATSALDEZ**
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa



lea artibai
ikastetxea
Etorkizuna eraikiz

Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com



Farmalau
PARAFARMAZIA

Amantalak
Ume-aulkirako zakuak
"Grupo 0" ume-kotxerako zakuak
Merienda-poltsak
Motxilak
Kosmetika
San Franzisko, 20
943 747 565
ELGOIBAR





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LANTZOI.- Harenke mota bat. "Sardiñatara joan eta lantzoia ekarri".

Lotsabakoa. Ondarrutik jasotako berba. "Kendu zaittez ingurutik lantzoiori!".

LAPIAK BAIÑO GOGORRAGO ORATU.- Oso gogor heldu. "Lapiak baiño gogorrago oratuta dauka bere jarlekua".

astean esanak

"Badira animaliak guk baino memoria gehiago dutenak. Esaterako, gizakia zazpi zenbakiko serieak gogoratzeko gai den bezala, gorilek eta txinpanzeek bederatziko serieak gogoratzen dituzte. Gainera, denbora gutxiago behar izaten dute memorizatze eta epe luzeagoan gogoratzen dituzte. Horren zergatia? Gizakiok sozietate handiagoetan bizi gara eta horrek bizi dugun guztia gogoratzeko ezinezkoa egiten duela. Txinpanzeek bikain menderatzen dute gure lengoia; gu gormutuak ematen dugu euren lengoia erabiltzean"

(FELIPE FDEZ, HISTORIAGILEA)

"Ur mineralaren plastikozko botilak dira gaur egun bizitza-estilo osasungarriaren ikurrik gorenena, talde-hipokrisiak horretara behartuta. 'Bizitza osasungarriaren' irrika horrek neurririk gabeko kontsumismoaren mozorroa besterik ez denean: munduan bizi garenon kopurua bikoiztu egin denean azken 50 urteotan, botiletako uraren kontsumoa 300 aldiz igo da, urtero plastikozko bi mila milioi tona hondakin sortzeraino. Hurrengo munduko kongresuan, ur botila eskuan dutela, ekologia-hipokritek jarraituko dute esaten gain-populazioak gure planeta mehatxatzen duela"

(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)


"Sexua banalizatu egin da eta neskek dira horren biktima nagusiak. Hainbat komunikabide, erakunde eta giza-botere gure bizitzetan arpilatu dira zelako bizitza sexuala izan behar dugun agintzeraino: zer jantzi behar dugun, monotonian ez garelako jausi behar, sadomasokismoa praktikatze, bikote elkartruketan parte hartze... Merkatal eta aginte esparrutik hori egitea normala izan daiteke; eta euren buruak mugimendu alternatibotzat jotzen dutentzat datorrenean? Sexua transgresioa dela saldu digute eta, horren pean, badirudi azalean distira berezia sortu behar digula"

(ANA DE MIGUEL, FILOSOFOA)



Bota dabe Arragueta etxia

Sanjuanak baiño lehen ekin zetsen martxuan Arragueta kalia erre zan etxia botatzeko biharrerri eta, behin etxia eraitsita, oin lurra bardintzen dihardue. Etxia erre eta egun gitxira, kaltiak oso haundixak zirala ikustian, onena etxia eraistia izango zala erabagi arren, uste baiño gehixago luzatu zan lanen hasieria. Baiña ekaiñeko lehen hamabostaldixan etxetik harririk jausten zirala ikusitta, badaezpada lehenbailehen ekin zetsen biharrerri.



Eibarko Bizikleta plaza konpontzen hasi dira

Aste honetan hasi dittue Eibarko Bizikleta plaza konpontzeko biharrak, udalak obrira Viconsan enpresakueri 283.400 euruan (BEZ barne) esleitu eta gero. Asmua parkia goititik behera barrizatzaia da eta, bestiak beste, zorua impermeabilizatu eta konponduko dabe. Horrekin batera,

banku eta paperontzi barririk ipiñiko dittue eta, baloiarekin jokatzen dabenian pelotia Toribio Etxebarria kalera jausi eta baten bateri min emoteko arriskua saihesteko, alde horretan babesak jarriko dittue. Biharrak hiru hillebete eta erdiko epian amaittu biharko dittue.

Udako ordutegixa udal zerbitzuetan

Uda dala eta, hainbat aldaketa izan dira udaleko sail eta zerbitzuen ordutegixan. Udal sailak eta Pegora astelehenetik barixakura 08:30xetatik 13:30xera zabalduko dittue uztaillian. Portalea, barriz, astelehenetik barixakura 09:00etatik 20:30xetara zabalduko dabe uztaillian (asteburuetan itxitta). Juan San Martin Liburutegixa uztaillaren 11tik 29ra bittartian 09.00etatik 13:30xetara eta 16:30xetatik 19:30xetara zabalduko dabe. Euskara Zerbitzua eta Gizartekintza, barriz, astelehenetik barixakura, 09:00etatik 13:00era egongo dira zabalik, uztaillaren 31ra arte. Udal Euskaltegixa hillaren 22ra arte zabalduko dabe, astelehenetik barixakura, 08:30xetatik 14:00xetara (23tik 31ra itxitta). Eta Armagintza Museua martitzenetik barixakura zabalduko dabe, 16:00etatik 20:00etara (astelehen, zapatu eta domeketan itxitta). Uztaillaren 25ian dana itxitta egongo da.



asteko
3.504
datua

lagun eguzen Lanbiden izena emonda ekaiña amaieran, aurreko hillian baiño 104 gitxiago: 1.521 gizon (74 gitxiago) eta 1.983 andra (30 gitxiago). Azken lau urte eta erdiko kopururik bajuena da.



Jaso dabe Sostoaren otarra

Sanjuanak bueltan Sostoa abesbatzak egindako otarraren zozketan 00475 zenbakixa izan zan sariduna eta otarra zenbakixaren jabiak, argazkixan ikusten dozuen Eudosa Rivas Fernandezek eruan eban. Zorionak eta on egin!

Pagatxakuak Salamancan

Pagatxa emakumien alkartiak hiru eguneko urteeria egin eban ekaiñian. Bestiak beste Salamanca, Ciudad Rodrigo, La Alberca eta Mogarraz ikusi zituen eta, handik bueltan, edarto ibilli dirala erakusteko hónek argazkixok bialdu deskuez.



Arrateko txosnetarako eskaeriak

Zerbitzu saillak herriko talde eta alkartieri aditzera emon nahi detse Arrateko jaixetan txosnia ipiñi nahi dabenak Pegoran eskaeria egin biharko dabela, hillaren 15erako (13:30xak arte). Eskaera orrixa Pegoran edo udalaren web orrixan (www.eibar.eus) eskuratu leike. Salmenta postuak ipintzeko eskaeriak be epe horren barruan egin biharko dira.



autuan

JOSTEKO MAKIÑEN MUSEUA

Aurreko astian zabaldu eben Alfako josteko makiñen museua Torrekuan. Urte morduan enpresaren ikurra izan zan josteko makiñaren 220 bat modelo, antxiñakuak eta barrixak ipiñi dittue ikusgai eta horri begira 2020. urtian 100 urte beteko dittuan enpresaren historixari errepassua emon leikixo.



1958-kuen BAZKARIXA

1958xan jaixotakuak urriaren 22xan batuko dira Azittaiñen alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 80 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 2095 5035 00 9116200099 kontu zenbakixan, izen abizenak ipiñitta.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
 <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	 <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> 	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Abenduko bidetik, baiña 1.195 boto-emaille gitxiago


Ekaiñaren 26ko hauteskunde orokorretan parte-hartzia bost puntutik gora jaitsi zan Eibarren: abenduaren 20xan %70,36k emon eban botua, baiña oinguan parte-hartzia %65,15ian geratu zan. Hau da, orduko %29,64ko abstentziñua %34,92ra igo da. Holan, 1.195 boto-emaille geratu dira bidian. Bestalde, alderdixak lortutako postuetan ez da aldaketarik izan; hori bai, gehixenak boto kopuruetan jaitsi badira be, jaitsieria ez da neurri berian izan. Elkarrekin Ahal Dugu-k boto gehixen izan dittu atzera be, 3.950, baiña abenduan, Orain Batteredekin 4.202 izango zittuanez, 252 galdu dittu. EAJ-PNVk justuan eutsi detsa bigarren postuari, PSE-EEK baiño 53 boto gehixagorekin: 3.053 boto jaso zittuan ekaiñian, abenduko 3.327ak baiño 274 gitxiago. PSE-EEK justuan eskuratu zittuan 3.000 boto, oin dala sei hillebete baiño 144 gitxiago. EH Bilduk galdu dau boto gehixen: 1.913 boto jaso dittu, aben-



Abenduko emaitzen bidetik, baina 1.195 boto-emaille gutxiago Eibarren

ZENTZOA	BOTO-EMAILAK	PORTE-HARTZEA	ABSTENTZIOA
21.423	13.942	% 65,08	% 34,92

Abenduko hauteskunde orokorretan parte-hartza bost puntutik gora jaitsi zan Eibarren: abenduaren 20xan %70,36k emon eban botua, baiña oinguan parte-hartzia %65,15ian geratu zan. Hau da, orduko %29,64ko abstentziñua %34,92ra igo da. Holan, 1.195 boto-emaille geratu dira bidian. Bestalde, alderdixak lortutako postuetan ez da aldaketarik izan; hori bai, gehixenak boto kopuruetan jaitsi badira be, jaitsieria ez da neurri berian izan. Elkarrekin Ahal Dugu-k boto gehixen izan dittu atzera be, 3.950, baiña abenduan, Orain Batteredekin 4.202 izango zittuanez, 252 galdu dittu. EAJ-PNVk justuan eutsi detsa bigarren postuari, PSE-EEK baiño 53 boto gehixagorekin: 3.053 boto jaso zittuan ekaiñian, abenduko 3.327ak baiño 274 gitxiago. PSE-EEK justuan eskuratu zittuan 3.000 boto, oin dala sei hillebete baiño 144 gitxiago. EH Bilduk galdu dau boto gehixen: 1.913 boto jaso dittu, aben-



duko 2.376 botuekin konparauta 463 gitxiago. Eta PP izan da gora egin daben bakarra: 1.330 bototik 1.363ra pasatu da (33 gehixago).

Oinguan, ekaiñeko hauteskundiak sanjuaneekin bat egin dabenez, internet bidez jarraipena egin badetsagu be, ez genduan paperian ale berezirik kaleratu, baiña nahi izanez gero Eibarko emaitzak gure webgunetik PDF-ian jaitsi zeinkie (etakitto.eus helbidian, mediatekan sartuta).



Askatasun eta Aniztasun Sexualaren alde


Ekaiñaren 28xan, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen askapenerako nazioarteko egunian, Askatasun eta Aniztasun Sexualaren aldeko banderia igo eben Untzagan. Egunian bertan, arratsaldian, "Emakumeak, estereotipoak eta aniztasun-sexuala" world-kafia egin zan eta, horrekin batera, erakusketia ipiñi eben udaletxeko patixuan.



Aniaiz Ariznabarretaren aldeko moziñuak aurrera egin eban

Maiatzaren 17xan Audientzia Nazionalian egin eben epaiketaren harira, Aniaiz Ariznabarreta eibartarraren kasua salatzeke Eibarko Libre ekaiñeko azken asteleheneko udalbatzan moziñua aurkeztu eban. Aurrera egin eban EAJ, Irabazi eta EH Bilduren aldeko botueri esker, "PSOEren jarrera inbilibistaren kontrako bozkak gainditu eta gero". Horren aurrian Eibarko Libre-ko ordezkariexek egindako adierazpenen arabera "pozten gara udalgetxeko plenuan hartutako erabagixaz

eta eskertzen dogu jazarpen, torturen eta emakumienganako indarkerixari egindako salaketia dala eta". Udalbatzak onartutako moziñuak sei puntu dakaz eta, bestiak beste, "tortura erabiltzia gaitzetsi eta erantzukizunak eskatzia" jasota dago testuan. Eta, horrekin batera, "torturarik eta oiñarrizko eskubidiñen urraketarik barriro ez gertatzeko neurrixak eta biktimeri eragindako sufrimenduaren aitortza eta erreparaziñua ahalbidetzeko bittarte-kuak ezartzia" exijitzen dau.



Errebal-Muzategiko eskillara mekanikua

Udaleko Zerbitzu saillak aditzera emon dabenez, Errebal-Muzategiko eskillara mekanikua geldittu egin dabe, "Errebalen egitten diharduen biharrengaittik eta segurtasuna bermatziarren". Astelehenerako atzera be martxan jartzia aurreikusi dabe.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIÑDO

Amañako eskolakuen festa

Amaña ikastetxeak II. Eskola Festa ospatu eben ekaiñaren 18xan, Guraso Elkarteak eta irakasliak antolatuta. Kontau deskuenez, "egun honen helburu nagusixak euskeriaren erabillera ludikua bultzatzia, harrerria, partaidetza eta alkarlana dira". Goiza taillarrak, puzgarrixak, psikogelia eta zikloka antolatutako jolasak bete eben. Eguardixan alkarrekin bazkaldu eben eta, eguna agurtzeko, musika eta animaziñua euki eben, DJ NAI-ren "Mugi Boogie"-ren eskutik.



Belaunaldixen arteko elkartrukiaren aktibidietako bat.

Horrekin batera, ikastetxeko arduradunak azaldu dabenez, "hiru urte daroiaguz Egogain gerontologikuan daguzen modulueta egoilliarrekin jarduerak antolatzen. Urte guztian jarduten dogu eta 4 urteko haurretatik hasitta 6. maillara arteko ikasliak parte hartzeko aukeria eukitzen dabe. Eskola-bartzian egoilliar batzuk ibiltzen dira gurekin alkarlanian eta, bestelako taillarrak egitteko, ikasliak Egogaiñera juaten dira. Ikasturtia eta belaunaldixen arteko alkartrukia agurtzeko, egoilliar batzuk eskolara etortzen dira eta festa giruan harrerria egitten detsagu. Lantzen diran baloriak eta lortzen diran emaitzak kontuan hartuta, datozen urtietan be honekin jarraitzia espero dogu".

Euskaltegiko irakaslien lan-poltsa

Uztailaren 22ra arte egongo da zabalik Eibarko Udal Euskaltegiko irakaslien lan-poltsa sortzeko lehiaketan parte hartzeko izena emoteko epia. Euskaltegiko irakaslien ordezkapenak egitteko lan-poltsarako hautagaixak diplomaturia, lizentzia, gradua

edo hórren baliokidia euki biharko dabe eta IVAPeko 4. HE derrigorrezkua izango da. Ez da azterketarik egin biharko eta merituen baloraziñua egingo dabe. Eskaeriak egitteko edo informaziño gehixago eskatzeko Pegorara juan biharko da.



San Pedro jaixak batukadaren erritmora

Ekaiñeko azken egunetan edarto ospatu zittuen San Pedro jaixak Karmen kaleko parkian, Beheko Tokia jubilaun etxeak antolatutakuekin. Betiko joko eta musikiarekin batera, aurtengo nobedadia Esperientzia Eskolako azken promoziñuaren eskutik sortu daben Emaedamba taldiaren batukadia izan da.



Sankristobalگو jaietan motorrak berotzen!!!

40 urtetik beherakoek, ziurrenik, sekula ez duzue Elsa Baeza izena entzun. Hortik gorakoei, berriz, ezaguna egingo zaizue, batez ere 70. hamarkadan "El Cristo de Palacagüina" edo "El Credo" abesten zuen kubatarra dela gogoratzen badizuegu. Elsa Baezak larunbatean emango duen kontzertuarekin, 60-70 hamarkadetan musika munduan gorenean ibilitako artistak ekartzeko ildoari jarraituko diote San Kristobal auzoan.

Baina aurretik beste musika estilo batzuk eta bestelako ekitaldiak ere izango dira. Gaur (ostirala) 19:00etan **txupinazo**arekin hasiko dira motorrak berotzen. Jarraian, **omenaldia** egingo zaio Eibar KE-ko auzoko kuadrilari. Ondoren, kalejira egongo da Orkestra elektrotarangarekin eta 19:30ean haurrentzako jokoak hasiko dira Fray Martin Mallea parkean. Ordu berean, tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta banatuko da auzoko taberretan eta Jai Batzordearen barran.

Gauean, rock eta heavy metal doinuak nagusituko dira San Kristobalen. 23:00etan **Iron**



Kiss taldea. Eskuman, Elsa Baeza.

Maiden taldeari omenaldia egingo dio Iron What taldeak, eta ondoren, 01:00etan, **Kiss** taldearen errepertorioa eskainiko du exKIS-Sitos taldeak.

Lambretta motorren igoera zapatuan

Bihar, zapatua, 10:30ean hasiko dira ekitaldiak, haurrentzako antolatu duten **marrakzi lehiaketarekin**. Jarraian, haurretzako **Moltó motorren** kontzentrazio-lasterketa egingo dute, eta eguerdian "Sandia-jana" egingo dute, ohikoa den moduan, Aizarna parkean.

Urtero bezala, **Lambretta motorren kontzentrazioa** izango da zapatuan. Aurtengoa 13. edizioa da, eta 12:30ean San Kristobalera igo eta motorren erakusketa egingo dute San Kristobalگو plazan, piskolabisa egin ondoren. Bihar arratsaldean igel eta dardo txapelketak izango ditugu 18:00etatik aurrera, eta 19:30ean **Dominguez Mariachiren** emanaldia.

Nuria&Sofiak girotutako **herri-afariari** ekingo diote gaueko 21:00etan, plazoletan. 22:45ean **Drindots** ei-



bartar taldearen dantzaldia hasiko da, eta 24:00etan, aldiz, **Elsa Baeza**ren txanda izango da. Ordebete iraungo du abesten, eta, ondoren, Drindots-ek zapatu gaueko giroa alaitzen jarraituko du. 03:00etan txokolate-jana eskainiko zaie nekazazuei.

Marmitako txapelketa domekan

Iganderako ere hainbat ekitaldi antolatu ditu San Kristobalگو Jai Batzordeak. 11:00etan **ohe elastikoak** eta **tirolina** jarriko dituzte Fray Martin Mallea parkean. 12:00etan hildakoen aldeko **meza** izango da, eta, ordu berean, **Marmitako Txapelketa** hasiko da plazoletan. 13:15ean **lunch**-a eskainiko diete plazan agertzen diren guztiei. Ondoren, marmitako txapelketaren **sari banaketa** egingo dute.

Arratsaldeko lehen zatian umeak izango dira berriro protagonista. 17:30ean freskagariak eta gozokiak banatuko dituzte eta, ondoren, Gorixorekin **zezentxo** eta **pony-ak** egongo dira. 19:00etan marrakzi lehiaketan eta jolas desberdinetan parte hartu dutenen artean sariak banatuko dituzte. 19:30ean **DJ Arabarekin** festa hasiko da eta 20:00etan rifa-ren zozketa egingo dute. 21:30ean, **traka**-rekin jaietara amaiera emango zaie.



Lambretta motorrek ez dute kalerik egingo urteroko hitzorduari.

Ekaineko lehen domekan Mallabian egin zuten Nekazaritza eta Artisautza azokaren aitzakiarekin, 25 urtean trikitixa irakaslea den Adolfo Jainagari omenaldia egin zioten. Mende laurdena bete du soinua irakasten eta, Eibarren ez ezik, Markinan, Elgetan, Eskoriatzan, Legution eta Mallabian ere ematen ditu klaseak. Eta, horrez gain, 30 urtez dihardu plazetan jotzen eta herrietako kaleak soinu txikiarekin alaitzen.

ADOLFO JAINAGA, soinujolea:

“Gaur egungo figurak herrietako ikasleak dira”

- Noiztik diharduzu soinuarekin?

Sakabi soinujolearekin hasi nintzen ikasten, Azpeitian, aurrez aurre, berak jo egiten zuen eta nik begiratu eta mugimenduak buruz ikasi eta kopiatu egiten nituen, orduan ez zegoen ikasteko beste modurik ezta eskolarik. Hasieran oso gogorra egiten zitzaidan, pentsa mugimenduren bat ahaztu edo txarto ikasiz gero astebete alferrik galtzen zenuela eta hori oso frustrantea zen. Kontuan izan behar da sasoi hartan erakusten ibiltzen zirenak ez zirela trikitixa maisuak, ez zuten metodologia edo horrelakorik izaten. Soinua afizioz jotzen zuten, ez ziren horretaz bizi. Beste lanbide bat zuten eta trikitixa horren osagarri bat zen, batzuentzat diru "extra" bat irabazteko modua. Eibarren, berriz, Irene Erostarbarekin soinu handia ikasten nuen.

- Klaseak emateko modua erabat aldatu da, baina, eta horretan zuk badaukazu zer esan, ezta?

Gaur egun Ken Zazpi taldeko teklista den Iñaki Zabaletarekin ere ikasten jardun nuen. Horrek bazekien solfeoa, nik ere banekien zerbait eta harekin batera, bion artean, metodo modukoa asmatu genuen. Hori Euskal Herri osora zabaldu genuen eta gaur egun ikasle zein irakasleentzat salbazioa bilakatu da hori. Berez 1985ean sortu genuen, baina argitara handik urte batzuetara, 1996an eman genuen, jendeak hala eskatuta. Sasoi hartan, 80. hamarkadan sortu ziren ere laster batean toki guztietara zabaldu ziren lehen eskolak eta 90. hamarkadan, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Martin Aginagalde eta belaunaldi horretako beste batzuren eraginez, soinuak benetako loraldia izan zuen. Gozategi, Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar... ho-

rrelakoen eskutik trikipopa eta trikirocka sortu ziren eta soinu txikiak gazteen artean arrakasta handia lortu zuen. Une honetan horrelako zerbait gertatzen da Esne Beltza eta Solanorekin. Horrela, soinu txikia han eta hemen, toki guztietara zabalitzen joan zen eta gaur egun, edozein tokitara joanda ere, herri guztietan aurkituko ditugu eskolak eta trikitilariak. Lehenago soinujoleak izendunak izaten ziren, baina gaur egungo figurak, zalantza barik, herrietako ikasleak dira.

- Eibarren ere baditugu horietako batzuk...

Soinuari dagokionez, Eibarren orain ari gara unerik goxoena bizitzen, urte osoan zehar egoten da saio edo kalejiraren bat. Gure ikasleentako batzuk, Musika Eskolan Marisol Arrillagarekin ikasten dihardutenak beste batzuren batera, 23 bat kiderekin whatsappen taldea sortu dute eta euren kontura ibiltzen dira. 15 eta 24 bat urte bitarteko gazteak dira eta, gurekin kalejiran ibiltzeaz gain, euren kontura jarduten dute trikipoteo eta bestelakoak antolatzen, irakasle barik jarduteko moduko maila eta autonomia izatea lortu dute eta hori benetan ederra da.

- Genero kontuetan ere asko aldatu dira gauzak zu hasi zinenetik hona, ezta?

Erabat! Gaur egun emakumeak dira nagusi soinu txikiarekin, ikasleen %80 in-



“Gure gurasoen sasoiak askok ezkondu eta, andrak derrigortuta, soinua betiko lurperatzen zuten. Lurperatu zentzu literalean!”

guru andrazkoak dira. Ni hasi nintzenean, berriz, emakumeek soinuarekin jardutea ia pentsaezina zen. Gizonen artean fama txarra bazuen, pentsa zer litzatekeen emakumeekin... Gure gurasoen sasoiak askok ezkondu eta, andrak derrigortuta, soinua betiko lurperatzen zuten. Lurperatu zentzu literalean, eh? Baserri batean baino gehiagotan lurra mugitzen hasi eta hantxe agertu dira soinuaren piezak. 1982an soinuarekin ibiltzen zen emakume bakarrenetakoa ezagutu nuen nik Hernanin, Miren Etxaniz.

- Soinu txikiarekin edozer jo daiteke?

Instrumentuak badauzka bere mugak. Eskumarekin konpletoa da, baina ezkerrekoarekin muga batzuk daude.

- Eta edozeinek ikasi dezake?

Bai, beti ere norberak jartzen dituen mugen arabera, baina bestela instrumentu erreza da. Gure ikaslien artean gazteenak 8 bat urte izango ditu eta nagusienak, berriz, hirurogeitaka bat urte. Batzuk erreza go eta beste batzuk gehiago kostata, jendeak jotzen ikasten du baina.

- Orain dela gutxi omenaldia egin zizuten Mallabian, nolako izan zen?

Oso emozionantea, ez nuen horrelako ezer espero inondik inora. Hasieran, deitu zidatenean, harritu egin nintzen. Pribilegiatua sentitzen naiz, birritan ordainduta, gustatzen zaidana egiten bizimodua ateratzeko zortea izateaz gain, gainera hori egi-teagatik eskerrak publikoki ematen dizkirate, ezin daiteke gehiago eskatu! 25 urtean harakin, kale-garbitzaile edo beste edozein ofiziotan ibilitako guztiek mereziko lukete horrenbeste, baina bakarrik gutariko batzuk daukagu horrelako zortea edo horretarako aukera.



Bide publikuaren erabilleriari lotuta dagan udal ordenanza hainbat aldaketa egiteko asmua dakela emon dabe aditzera udalian. Talde sozialistaren aldeko botuekin eta beste taldietako ordezkariaren abstenziarekin, oiñ arte indarrarian egon dan araudiari kanbixuak egittiari plenuan behin-behiñeko onarpena emon eta gero, jendiak aldaketen barri jasotzeko epia zabaldu da.

Terrazendako oreka billa

Udalbatzak onartu eban testua ekainaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialian emon eben argittara eta, horrekin batera, herritarren aldetik egon leikiazan aldaketa-proposamenak egiteko epia zabaldu zan. Uztaillaren 29ra arte egongo da alegaziñuak presentatzeko aukeria.

Miguel de los Toyos alkatiak azaldu dabenenez, "oiñ arteko ordenantzak jasotzen dittuan artikulu batzuk ostalarixak eurak proposauta aldatu dira, baiña edozelan be denpora osuan ahalegindu gara ostalari-tza-sektoriaren eta herritarren arteko alkarbizitzaren alde egitten. Izan be, espazio publikoren bat erabiltzia edo okupatzia eskatzen daben edozelako jarduera egiteko orduan oreka billatzia ezinbestekua dala pentsatzen dogu. Eta, kasu honetan, tabernarixak dittuen interesen eta herritarrenen, terrazak gustoko duttuenean eta gustoko ez dittuenen arteko orekia topatzen ahalegindu gara".

Oreakia lortzeko aldaketak

Oin arteko araudixari egindako kanbixuaren artian, bestiak beste, gitxieneko pasua estutzia eragin leikian bat dago: salbuespen modura gitxieneko igarobide edo pasua 3 metrotik 1'5 metrora jaisteko aukeria aurreikusten dau testuak toki batzuetan, hektareako 12 etxebizitzako edo hortik beherako densidadia daken urbanizaziño edo auzuetan daguazan espaloietan edo oiñezkuak pasatzeko erabilli bihar dittuen tokixetan. Espaloi estuetan, barriz, kupelak eta aulki altuak jartzeko aukeria egongo da, baiña edozelan be beti laga biharko da gitxienez metro biko tartia jendia arazo barik pasatzeko.

Hórrekin batera, beste aldaketa batzuk ekarriko dittu araudi barrixak: muntatu eta desmuntatzeko aukeria emoten daben terrazak zein fijuak, bixetarixuak jarri ahal izango dira, baiña fijuak oiñezkuendako gune berezixetan baiño ezin izango dira ipiñi, beti be kontuan izanda oiñezkuak edo



667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



ALDAKETA NAGUSIÑAK

- Hainbat baldintza beteta eta salbuespen modura, gitxieneko pasua 3 metrotik 1'5 metrora jaisteko aukeria aurreikusten dau testuak, hektareako 12 etxebizitzako edo hortik beherako densidadia daken urbanizaziño edo auzuetan.
- Muntatu eta desmuntatzeko aukeria emoten daben terrazak zein fijuak, bixetarikuak jarri ahal izango dira.
- Kupelak eta mahai eta aulki altuak ipiñi ahal izango dira, baiña ezin izango dabe eragotzi tokittik mugitzia eta egunero batzia.
- Inguruan bizi diraneri trabarik egin ezkeru, terrazia kentzera derrigortuko dabe tabernarixa.
- Ordutegixa: barixaku, zapatu eta jaiegun-bezperetan 09:00etatik 01:30xetara (maiatzaren 1etik irailaren 30era); bestela, 00:30xak arte. Eta domekatik eguaztenera, 09:00etatik 00:30xetara uda-sasoian eta 23:00ak arte beste hillebetietan. Herriko jaixetan, Aste Santuan, Aratostietan eta Gabonetan, ordubete luzatuko dabe ordutegixa.
- Tabernako arduradunak egunian birritan garbittu biharko dabe terraziak betetzen daben tokixa gitxienez eta, tabernia itxi eta dana jasotzen dabenian, derrigorrez dana garbi laga biharko dabe.
- Mahaixetan erretzailliendako hautsontzixak ipintzia derrigorrezkua izango da.

larrialdi zerbitzuetako ibilgailluak erabiltzeko premiñarik ez dabela izango. Bestalde, terraza finkuak diseiñu, estalki, elementuen modeluari eta bestelako kontu batzueri lotutako baldintza berezi batzuk bete biharko dittue (hórretzek guztiak ordenantzan argi eta garbi jasota dagoz).

Taberna askotan, ate inguruetan ipintzen dittuen kupelak eta mahai eta aulkialtuak ipintzen lagako dabe, *"beti be hórrek daken pisuak eta neurrixak ez bada-be eragozten tokittik mugitzia eta egunero batzia"*.

Kupel, aulki eta mahai hórrek euki leikiazen neurrixak eta materixalak, baita hórrek ipintzeko baldintzak ezarritta dagoz. Bestalde, expositoriak jartzeko permisua emongo dabe, *"baldin eta terrazak jasotzerakuan itxitta geratzen badira"*.

Zaratak eta ordutegixa

Beste atal batian zarateri eta ordutegixari lotutakuak jaso dittue eta, atal horretako barrikuntzetako bateri jarraituta, terrazako erabiltzilliak inguruan bizi diraneri trabarik egin ezkeru terrazia kentzera derrigortuko dabe tabernarixa. Mahaixak eta aulkixak mugitzerakuan zaratarik ez egitteko azpixon zer ipiñi bihar daben be zihezten dau araudixak.

Ordutegixetan be kanbixu batzuk egin dittue: barixaku, zapatu eta jaiegun-bezperetan, maiatzaren 1etik irailaren 30era bittartian, 09:00etatik 01:30xak arte zabaldu ahal izango dittue terrazak eta gaiñerako hillebetietan, barriz, 00:30xak arte. Eta domekatik eguaztenera bittartian, 09:00etatik 00:30xak arte zabaldu ahal izango dittue (maiatzaren 1etik irailaren 30era) eta



Dana jasotzen dabenian, tabernarixak terrazia egon dan tokixa garbi lagatzeko derrigorra eukiko dau arau barrixaren arabera.

gaiñerako hillebetietan, 23:00ak arte. Herriko jaixetan, Aste Santuan, Aratostietan eta Gabonetan, ordubete luzatuko dabe ordutegixa.

Amaitzeko, ordenantza barrixak jasotzen dabenez, tabernako arduradunak gitxienez egunian birritan garbittu biharko dabe terrazia ipiñitta dagan tokixa eta, tabernia itxi eta dana jasotzen dabenian, derigorrez dana garbi laga biharko dabe. Mahaixetan erretzailliendako hautsontzixak ipintzia be derrigorrezkua izango da eta, gaiñera, hórrek ura euki biharko dabe nahitaez.

Arrate bezperako KANTABRIA 21:00

IRAILAK 7
ASTEAZKENA

BERTSO-AFARIA

**SARRERAK
SALGAI**

Kufu
Sagarbitza
Kantabria

32€

ANDONI EGAÑA

AGIN LABURU

SEBASTIAN LIZASO

MAIALEN LUJANBIC

Ane Izarra eibartarrak Historia ikasi zuen Deuston. Gero Ondarearen Zaharberrikuntzan zentratu zen EHUUn eta datorren urterako aurkeztuko duen "Gipuzkoako ontzi tradizionalak: alak, txanelak eta gabarrak" tesia amaitzen dihardu. Artxibistikan ere Masterra du eta praktikak egin zituen Eibarko Udalean, Ego Ibarrendako, Santi Arizmendiarietaren bildumako idatziak azterten; horren fruitua izan da batzordeak aurten kaleratutako liburua. Urpeko arkeologian ere Masterra du Izarra ikertzaileak. Bildumazalea dugu eta internet bidez gauza interesgarriak berreskuratzea lortu du. Azken aldian Revista Eibar-en argitaratutako kolaborazioetan gure ondarearen gauza interesgarri eta, bitxiak neurri berean, gerturatzen dizkigu.

ANE IZARRA (teknikari dokumentalista):

"Ondarea berreskuratze bidean pausu bat atzetik goaz gehienetan"

- Zelako esperientzia izan zen Olga Arizmendiarietak lagatako bere aitaren bilduma sailkatzea?

Harribitxi batekin aurkitu ginen. Sei hilabetetan jardun nuen, ordu pilo eskaini nion, baina guzti horrek merezi izan zuen, oso aberasgarria izan zelako. Batez ere, Santiren gutunekin gozatu nuen gehien, berak Toribio Etxebarriari idatzitakoekin; nahiz-eta mundu pribatu horretan sartzeak erreparatu pixka bat ematen duen. Interesgarria zen benetan: eskola gazte laga zuena, autodidakta, esperanto kongresuetan jardundakoa eta irakatsi zuena, gizon kultura eta baita sentibera ere. Egiten dituen Eibarko paisaiaren deskribapenetan ondo ikusten da hori guztia. Herrian izandako aldaketan jakitun zen.

- Ego Ibarren, Udal Artxibategian... jardun duzu lanean. Gure ondarea zaindu eta berreskuratze helburua dute horrelako egiturek. Eibartarrok badugu interesik gurea izan dena gordetzeko?

Ahaleginak egiten dira eta hor lanean

dihardutenek benetan dute har hori sartuta. Artxibategian ere fondo bikaina dugu eta gauzak berreskuratze gogoia ere bada. Indalezio Ojangurenek laga ziguna ezin da ordaindu, aurten berreskuratutako dugun emakumeak lehen aldiz botoa eman zuten irudia interesgarria da oso... Arazo nagusia diru faltarena izaten da, gaur egun bizi dugun krisi-egoeretan eta antzekoetan hainbat proiektutan sakontzea oztopatzen duena. Dena dela, badira hainbat errealitate: Berreibar eraikuntza industrialak berrerabiltzearen alde dihardu, hor dugu Arrateko Interpretazio Zentroa, ea behar den etekina ateratzen asmatzen diogun, Museok ere badu bere funtzioa, San Andres parrokiak duen aberasgarritasunak merezi du aztertzea...

- Eta zuk, eibartarra izanda, zelan jo zenuen tesia itsas-ontzi tradizionalen inguruan egitera?

Zarautzekin ere lotura izan dut txikitatik eta askotan deitu didate atentzioa. Ez naiz damutzen: zortzi urte daramatzat tesiarekin

eta bi zuzendari izan ditut. 60 urtetik gorako dozena baten inbentarioa egin dugu eta baita pare bat kontserbatzeko proposamena. Holako ontziak Oriá ibaian iraun dute gehien: anguletarako, harea garraiatzeko, eraikuntzarako... sasoi batean erabiltzen ziren base-rietan.

- Baina tesia amaitzekotan zaude. Pozik egindako lanarekin?



Bisualki behintzat oso polita geratuko zaidala esan dit zuzendariak; edukiarekin asmatu behar orain. Ontzien eta erreka eszena zaharren 500 bat irudiren bilduma egin dut, asko internetez. Enkanteetan ere parte hartu izan dut Gipuzkoako eta Eibarko erreketako irudien bila. Ontzi asko desagertu dira dagoeneko, uretatik atera eta berreskuratzea diru mordo eskatzen zuelako edo biltegi batek ere gutxieneko neurriak behar dituelako. Ondarearen inguruan beti dago interesa duen jendea, baina ez dakit berandu samar ez ote gabiltzan, beti pausu bat atzetik. Eta diru-partidarik gabe zaila da arazoi aurre egitea.

- Aurkituko zenuen gauza bitxirik...

Beti izaten dira. Lortu dut Eibar eta Ternuaren arteko lotura egitea, balearen koi-pea tarteko; gaez argia egiteko ere erabiltzen zuten. XV. eta XVI. mendeetan Elgoibarreraino behintzat heltzen ziren ontzi horiek, badago gabarra baten irudia bertako zubi baten azpian... Esperientzia bereziak bizi izan ditut: gabarretan ibili gara aintzina moduan, simulazioak egin ditugu anguletan jarduten, gainera Oriá ibaiaren bueltan badira interes orokorrekoak izendatutako baserriak, dokumentu interesgarriak izan ditut esku artean... Azkenean, kamara digital ona ere erosi dut. Orokorrean, jende jatorrekin egin dut topo; baina gehienetan eurak ez dira duten altxorren jabe izaten.

- Hemendik kanpo gehiago zaintzen dute, akaso, ontzien arlo hori?

Galizian, esaterako, ontzi tradizionalak turismoa indartzeko erabiltzen dituzte, motora eraldatu eta erreplikak eginez. Hemen Nao San Juanekin-eta hasi gara zeozertan.



AZA TA PORRUA elkartekoak ekoizleei bisitan



Badira urte batzuk produktu ekologikoaren kontsumoan eta horien hedapenean interesatuta dauden kontsumitzaile batzuk elkartu eta Aza ta Porrúa taldea osatu zutela. Eurek diotenez, *"gure inguruko ekoizleekin harreman zuzena sustatu eta indartzea da gure helburu nagusia"*. Noizbehinka, gainera, euren produktu hornitzaileei bisita egiteko ere aprobetxatzen dute: *"Berehalakotasun horrek zer jaten duzun eta zer jango erakusten dizu"*, diote Arabako lautadara joan diren bidaiariek. *"Eredia eta Andikana baserriak bisitatu genituen. Eredia Adolfo patatak eta azenarioak zelan lantzen dituzten erakutsi zigun eta Andikanako Martzelinok bere produkzioen berri eman zigun"*. Zerealak zelan datozen ikasteko ere aprobetxatu zuten txangoa: *"Txitxirioak, dilistak, garia, olua, garagarra..."* izan zen ikustekorik Arabako lautadan.

Laster Olabarriara joateko asmoa ere badute, *"hango baserri batetik jasotzen ditugu esnekiak-eta"*. Debako Doniene Berri baserria da hornitzaile garrantzitsuenetarikoa, Eibarko Sosolatik ogia eta gazta aprobetxatzen dute eta *"Amazabalegitik okelakia"*. Bestalde, Billabona inguruan, Behieko Sabekoetxea eta Zuhaitzo baserrietan ekoiztutako produktuak erabiltzen dituzte, *"eta baita Galgorrikoak ere"*. Aurretik egindako beste irteera batzuetan oílasko ekologikoen *"prozesu guztia jarraitzeko aukera izan genuen"*, diote: *"Ez dira oilategi konbentzionalak han dituztenak. Haztegi guztiz naturalean presa barik hazitako txitak bizi dira han"*.



Lantalde berria

Txangoez aparte, Aza ta Porrukoek ez dira lan egitearen beldur eta, horrela, *"auzolanean jardun izan dugu, Sosolan, garia biltzen"*. Bestalde, bertoko eta inguruko ekoizleekin badute lanketa egiteko asmorik, *"gure prozesuan sakontzeko"*. Bazkideztza bitartez funtzionatzen dute eta gaur egun 45 bat dira elkartean: *"Hilero 12 euro ordaintzen dugu, Juan Gisasola kaleko 10ean dugun lokalari aurre egiteko"*. Astelehenetan eta eguenetan zabaltzen dute lokal hori, 17:00etatik 20:00ak arte, eta bertako txandak betetzeko konpromisoa hartzen dute: *"Urtean bi txanda besterik ez da"*.

Aza ta Porruko bazkideak astero produktu ekologikoak erosteko aukera du horrela: aipatutako egunetan hurrengo astean jasotzeko produktuen eskaerak hartzen

dituzte, batez ere Doniene Berriko barazkiak eta arrautzak eta Sosolako ogia eta esnekiak. Sasoiaren arabera, *"laranjak, mandarinak, okela eta beste hainbat produktu eskatzeko aukera ere izaten da"*. Horrez gain, lokalean marmeladak, eztiak, fruta, fruitu lehorrak, kafea, arroz eta arto tortitak, zerealak, lekaleak, ardoa, garagar-
doak, zukuak, algak, azukrea, txokolata, tofua, tofu hanburgesak, oliba olioak... denetarik erosi dezakete. Eta guztia bitartekaririk gabe, *"kostu-prezioan"*.

Elkartean izena ematea nahi duenak aipatutako egunetan pasatu daiteke lokaletik edo, bestela, azataporrúa@gmail.com helbidera idatzi dezake. Hori bai, lokala ez da denda bat, elkarlanean burututako proiektua baizik. Mari-Motots pailazoa izan zen orain dela gutxi bertan, Ama-Lur azken ikuskizuneko bideoaren grabaketarako.



Txitxirioaren ekoizpena ezagutzeko aukera izan zuten Aza ta Porrukoek. Baita oiloak ingurune guztiz naturalean zelan hazten diren ikusteko ere.

Mikel Miguelena (Eibarko Klub Deportiboko atleta)

"Podiumera igotzea esperientzia ikaragarria izan da"

Maiatzaren amaieran Donostian izandako Gipuzkoako Txapelketa Absolutoan hirugarren postua lortu zuen Mikel Miguelena atletak 400x4 erreleboko frogan. Berarekin batera Julen Teran, Tomas Vouilloz eta Ander Gisasola egon ziren. Mikel 24 urteko irundarra da, baina 3 urte daramatza ATZEGIK Eibarren, Arragueta kalean daukan etxebizitza tutelatuan bizitzen. GUREAK enpresan egiten du lan eta astean hiru egun Unben entrantzen du Inma Urkiolarekin. Oso pozik dago denboraldi honetan ikasitakoarekin eta eskerrak eman nahi dizkio Inmari, erakutsi dion guztiagatik.



- Zer sentitzen da domina bat irabazterakoan?

Sekulako esperientzia izan da. Oso pozik nago lortutakoarekin eta asko zor diet Inma Urkiolari eta nire talde-kideei. 7 urterekin hasi nintzen atletismoa egiten, Irungo Super Amara Bat taldean. Betidanik gustatu zait korrika egitea, eta Eibarrera bizitzera eta lanera etorri nintzenean atletismoarekin jarraitu nahi nuela argi nuen. Nire desgaitasuna dela eta, kirol egokituan jarduteko eskaintza egin zaidaten, baina nik ezetz esan nuen eta kirol normalizatuan parte hartu dut. Lortzen dudan lehenengo domina da hau, baina espero dut azkena ez izatea, lanean gogor jarraitzeko asmoa daukat eta. Oso urduri nengoen, baina oso ondo atera zitzaidan. Nire familia ere oso pozik dago, txanpañarekin ospatu genuen!!!


- Beraz, zure markak hobetzeko asmoa daukazu datorren denboraldian...

Bai, hori da helburua: markak hobetzea. Nire espezialitatea 60, 100 eta 200 metroko lasterketak dira. Durangoko froga libretan (PLP), 100 metroko lasterkerketa 12,66 segundotan egin nuen, eta 60 metro 7 segundotan egi-

ten ditut. Orain helburua denbora horiek jaitea da. Gainera pertiga jaurtiketa probatu nahi dut. Behobiarako ere prestatzen ari naiz, nire herritik, Irunetik, korrika egiten pasatu nahi dut. Asier Cuevas lasterketan ere parte hartzen dut. Korrika egiteak bizitza ematen dit, oso lasaigarria da. Pentsa zenbat gustatzen zaidan Irungo jaietan buruhandi bezala ibili naizela 7 urtetan.

- Arragueta kalean bizi zara ATZEGIren pisu tutelatu batean. Zer moduz?

Oso ondo. 8 gizonetzko bizi gara bertan, ni gazteena naiz. Gurekin 3 monitorea daude, euren artean txandakatu egiten dira eta beti dago bateron bat gurekin. Egunero GUREAKera joaten naiz lanera, eta entrenatzera astean 3 aldiz. Horretaz gain domeketan nire kabuz entrenatzen dut, normalean Aixolaraino joaten naiz. Eibarren jende asko ezagutzen dut eta atletismoan ere lagun berriak egin ditut. Oso ondo konpontzen naiz eurekin. Asteburuetan Irunera joatea gustatzen zait, familiarekin egotera. San Marcialetan ere han egon naiz. Oporretan Portugalera joango naiz ATZEGIko talde batekin.



JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAren 5. URTEURRENA (2011-VII-4)

*"Bost urte pasa badira ere,
gure bihotzetan jarraitzen duzu"*

ZURE FAMILIA



"Felix Sopelana XII. Memoriala"

karrera amaierako saria

Eibarko Ingeniaritza Eskolako Xian Carballo Garcia de Vicuña ikasleak irabazi du Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialaren Elkargoak ematen duen "Felix Sopelana XII. Memoriala" karrera amaierako proiektu onenaren saria, "Sarean konektaturiko kogenerazio sistema baten diseinu optimoa" lanarekin. Ikastetxe bereko Francisco Javier Asensio De Mi-

guel eta Jose Ignacio San Martin Diaz irakasleak dira proiektuaren zuzendaria eta Ingeniaritza Eskola hartzen duen Hezkuntza Esparruak duen energia-eskaria asetzea da proiektuaren helburua. Ardatza sarera konektatzeko protoi-trukeko erregai-pila batean oinarritutako bero eta elektrizitatearen sorkuntza konbinatutako sistemaren diseinu optimoak osatzen du.



Xian Carballo ikaslea irabazitako sariarekin.

Oporrak gaztelekuan

Ekaina bete-betea izan eta gero, uztaila eta abuztuan itxita egongo da Indianokua gaztelekua. Udako oporrak amaitzean, irailan zabalduko dituzte ateak, gazteen aisialdirako ohiko eskaintzarekin.



Irailan hasiko du ikasturte berria gaztelekuak.

La Salle ikastetxearen esker ona

La Salleko zuzendaritzak eta Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak helarazi digun idatziaren bitartez ikasleak zoriondu nahi dituzte, "aurten, 2015-2016 ikasturtean izandako emaitza onak direla-eta. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu irakasle, familia, IGE, laguntzaile eta komunikabideei egindako lanarengatik eta gure hezkuntza proiektuan eragile izateagatik. Opor zoriontsuak izan ditzazuela guztiok!".

MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

3. urteurrena: 2013-VII-7



*Amama
Beti gure bihotzean*



Komunikazio kanal berria Udal Liburutegian...

Liburutegiak etengabe aztertzen ari da bertara hurbiltzen diren pertsonentzako zerbitzuen eskaintza era; hori dela eta, herritarren artean ia guztiz ezarrita dagoen tresna teknologiko bat erabiltzea erabaki du: **WhatsApp**-a.

Mailegu zerbitzuak telefono dei kopuru handia sortzen du egunero gure erabiltzaileei hainbat abisu emateko: erreserban eskatutako dokumentuak erabilgarri dituztela; erosteko eskatutako dokumentuak etorri direla eta, beraz, mailegurako erabilgarri daudela, eta liburutegien arteko maileguan eskatutako liburuak iritsi direla.

Hain zuzen ere, pasa den urtean **1.248 bider** erabili genuen telefonoa **erreserben abisuak emateko**, **149 aldiz erosteko eskatutako dokumentuak** mailegurako prest zeudela esateko eta **775 bider liburutegien arteko maileguan** eskatuta-

ko liburuak liburutegian zegoela adierazteko. Horrek egiten du **2.172 telefono dei gutxienez**, askotan errepikatu behar direlako abisatu nahi dugun pertsonak ez badu lehenengoan erantzuten.


Gure bazkideekiko komunikazioa hobetu nahian, hemendik aurrera **WhatsApp** ematen dituen abantailak aprobetxatuko ditugu, gure erabiltzaile gehienek badutela dagoeneko smartphone bat, non **Liburutegitik espero dituzten abisuak berehala jaso ahal izango dituzten**. Horrela, ez dute dei galdurik izango eta ez diegu eragozpenik eragingo deitzen dugun orduetan askotan lanean egoten dira eta. Gainera, gure geletan ikasten dauden pertsonen ere onura ekarriko die, telefono dei horiek halabeharrez sortzen duten **zarata murriztu** egingo delako.

Liburutegiko WhatsApp zenbakia 688 691 733 da.

Liburuak



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—



...martxan jarri da bere bazkideekin erabiltzeko



Musika

iñaki
zubillaga

Rock'n rolla, hondartza, etabar

Festivalen garaia da. Asteburu honetan Resurrection Fest eta BBK Live, Viveiron eta Bilbon; hurrengo astean Rock Fest Bartzelonan eta FIB Benicassim-en. Nire aukera: Galiza orain eta FIB Castellonen datorren astean. Kontuan hartu bi leku horietan kostaldea dagoela goizean haizea hartzeko, eta bietan kriston kartela. Metala alde batetik: Iron Maiden, Volbeat, Madball, Gojira... eta 'indie' pop bestaldetik: Muse, Massive Attack, Delorean, The Chemical Brothers eta beste aukera berriagoak.



Aukera guztiak interesgarriak dira, baina markatu ditudanak nahaste erakargarriagoa daukate. **Galizako** proposamenak,

Iron Maiden aurkeztu zuenetik, sarrera guztiak salduta ditu. Baina talde klasiko horretatik aparte, hardcore, punk eta rock berria eskaintzen dituztenak daude: Abath, Dark Tranquility... oso gogorak.



Asteburu honetan **Bilbon** pop eskaintza dago BBK Live-n: Arcade Fire, New Order, Love of Lesbian, Pixies, Slaves... Denetarik, baina aurten bilbotarren kartela ez da hain interesgarria. Gainera, oztopo handiena lekua bera da: Kobetamendi ez da hola-ko "folloia" muntatzeko leku aproposena.

Eta hurrengo zapatuan, hor bai, Muse: talde berrien artean etorkizun luzeena ikusten zaiona. Pop jaialdian egongo dira **Benicassim-en**, baina euren proposamena zabalagoa da, "espazioko rock-a". Hidrogenese, The Vaccines, The Maccabees eta Dorian, talde gazteen artean; eta baita beste klasiko bat ere, Echo & The



ROCK FEST BARGELONA

Bunnymen. Nire aukera, zalantza barik: FIB Castello-n.

Aldi berean, **Bartzelonan** klasikoenetik klasikoena izango ditugu: Iron Maiden, Twister Sister, Whitesnake, Slayer, Thin Lizzy, Blind Guardian etabar.

Gaur egun gauza guztiak egiten dira kontatzeko, konpartitzeko. Jendeak jakin dezan.... jakina! Bestela, zertarako gastatzen da hainbeste diru? Horregatik, jaialdi horietako antolatzaileek bestelako aukerak ere muntatzen dituzte: jolasak, kirolak, denborapasak... Eta, noski, produktu pila erosteko euren marka erakusteko. Ondo ibili eta txintxuak izan.

Gros Xake Taldea nagusitu zen Kruzetaren omenezko txapelketan

Hamalau taldek hartu zuten parte aurreko zapatuan jokatutako Jose Mari Kruzetaren omenezko 32. Eibarko Hiria txapelketan eta donostiarrak nagusitu ziren, guztira 45,5 puntu eskuratuta. Berdinketa bakarrarekin eta gainontzeko match guztiak irabazita, Grosekoak erraz nagusitu ziren eta Leioako Altzagari, bigarren sailkatuari, zortzi puntuko aldea atera zioten. Hirugarren sailkatu zen Erreneteriako Fomento Cultural, 36 punturekin.

David Perezek, Jon Aranak, Emilio Freirek eta Lander Ajak osatutako Eibarko Klub Depor-

tiboko taldeak ez zuen egunik onena izan eta azkenurreko postuan amaitu zuen. Jose Antonio Garrido eta Aitor Berorlegi eibartarrek, bestalde, Azkoitiko Anaitasuna Kakute taldearekin jokatu zuten. Sari banaketan izan ziren Margarita Olañeta, Kruzetaren alarguna, eta Patxi lejarri zinegotzia. Arratsaldea aprobetxatu zuten ere Xake Mate Fibrosi Kistikoari kanpainan parte hartzeko, horretarako Erreneteriako Fomentokoek lagatako xake erraldoia erabiliz eta xakean jokatzekeo jarritako mahai eta jokoei esker.



Txapelketako irabazleen talde-argazkia, Untzagan bertan.

Eibarko triatletak bikain Debacko VIII. Xtreme Triatloian

Deltecoko Pello Osoro eibartarra bigarren sailkatu zen aurreko zapatuan Deban jokatutako sprint distantziako probaren zortzigarren edizioan, Mikel Ugarte oñatiarrarengandik (1:11:09) minutu erdira justu. Txomin bere anaia 11. postuan helmugaratu zen, proba bikaina eginda. Delteco Eibar Triatloi Taldeko beste lau ordezkari izan ziren Deban: Roberto Gartzia (59. postuan), Andoni Mayo (86.), Martin Irigoien (146.) eta Moises Altuna (178.). Eta, emakumezkoetan, Saltoki Trikideak taldearekin parte hartu zuen Ane Ziaran eibartarra bosgarrena izan zen, Ibone Sanchez laudioarra (1:18:47) irabazle izan zuen



Roberto Gartzia polito jardun zuen Deban, 59. postua lortuta.

proban. Parte-hartzaileek 750 metro egin zituzten igerian, 25 kilometro bizikletaz eta 5,2 kilometro antxintxiketean.



Montero pilotoa podiumean jokatutako hiru probatan

Bartzelonako Montmeló zukuioan jokatutako Gaztela-Mantxako Txapelketaren hirugarren proban, Eibarko motorzaleak hirugarren egin zuen eta, horrela, sailkapen orokorrean bigarrena da, lehenengoarengandik lau puntura, eta liderra dugu Master mailan. Zapatuko entrenamenduetan Aitor Monterok pole position-a galdu zuen hiru milaren aldearengatik eta bigarren postuan irten zuen, parrilaren lehen lerroan. Do-

mekan, lasterketan dagoeneko, txarto irten zen laugarren postura jaitzita, baina nahikoa arriskatu eta gero hirugarren postua lortu zuen, eta baita gorde ere proba amaitu arte. Zortzigarren itzulian galdutako atzeko neumatikoak eragotzi zion Eibarko pilotoari aurreko biak harrapatzea. "VHC Liqui Moly Racing Team nire taldeko Villasanta, Victor Fogues eta Jordi Gumbau teknikoek egindako lana" azpimarratu zuen Monterok.



Azparren junior mailako Euskadiko txapeldun San Juan Sari Nagusian

Victor Alvaro taldeko Xabier Mikel Azparrenek irabazi zuen gure herrian jokatutako San Juan Sariaren 81. edizioa eta, horrela, jokoan zegoen Euskadiko junior mailako txapela jantzi zuen. Donosti Berriko txirindulariak 35 segundo atera zizkion bederatzitxirindulariz osatutako taldetxoari, tartean Etxarri eta Senperena taldeki-deak zituela (3. eta 4. postuetan, hurrenez hurren). Autoner-

vion taldeko Iñigo Elosegi izan zen bigarren, talde horretako sprintean nagusituta. Eibarko Txirindulari Elkarteak antolatutako 99 kilometroko proba egitera 132 txirindulari animatu ziren eta euretako 74 iritsi ziren Ibasako helmugara. Irabazlearen batzbesteko abiadura orduko ia 40 kilometrokoa izan zen. Taldeko Victor Alvarok irabazi zuen eta mendiko sailkapena Azparrenentzat izan zen.

Ezin zaio gehiago eskatu herriko atletismo taldearen denboraldiari

Sariez inguratuta, markak bata bestea-ren atzetik eginez... horrelako denboraldia burutu dute Inma Urkiolaren aginduetara jardun duten atletak, bai neguan (pista estalian) eta baita udaberri-udan (aire librean) ere. Kros denboraldian hainbat domina eta kopa irabazi zituzten -Irunen, Hernanin, Lasarten, Arraten- eta Gaizka Cortes, Eneko Osoro, Gorka Kareaga, June Arosa, Kepa Markez, Jone Akuña edo Unax Amorrosta geraezinak bihurtu ziren. Proiektzioa badutela erakutsi zuten, bestalde, Ekain Egurrola, Garoa Magunazelaia, Mikel Martinez, Markel Garitaonandia, Pello Osoro, Endika Varona, Nora Larreategi edo Enara Magunazelaia jaurtitzaleek. Eta hesien kasuan, ez motzak ez luzeak, ez ziren gauza izan eibartarrei toperik ipintzeko; Imanol Egidazuk, Miren Urizarrek, Maddi Sarasuak, Irune Fernandezek edo Naz Lizundiak ezin txapeldegiko jokatu zuten arlo horretan. Fosoan ikaragarriko jauziak egin zituzten Karlitu Mendyk, Urko Martinezek, Leire Martinek, Aitor Mendozak, Aner Ortizek edo Aratz Morak. Eta koltxonetan lur hartzen ez ziren makalak izan Ainhoa Bilbatua, Koldo Maiztegi, Igor Kruzelaegi edo Irati Baskaran. Haizearen abiaduran jardun zuten, bestalde, Nora Zabalak, Maddi Tejadak, Karmele Hurtadok, Juliana Morenok, Lucia Urretak, Naia Gonzalezek edo Manex Sarasuak. Arranditsuzko errelebulariak izan ditugu Ibai Fernandez, Lucia Arrillaga, Aimar An-



Karlitu Mendy eta Eneko Osoro Espainiako txapelketan izan dira Euskadiko selekzioarekin.

sola, June Fernandez, Irati Etxeberria, Claudia Fernandez edo Elene Otaduy ere.

Aurreko gutxia gutxi balitz, infantil mailako mutilak Gipuzkoako txapeldegian izan dira, eta azpitxapeldegian alebin mailako-

ak. Nesken kasuan, hirugarrenak infantil mailan, eta alebinak txapeldegian erreleboetan. Proba konbinatuetan ezinhobeto lehiatu dute, kolore guztietako dominak lortuta, bai Imanol Egidazu, bai Miren Urizar eta baita Nora Zabalak ere. Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu zuten Gaizka Cortesek eta Gorka Kareagak krosetan, eta Garoa Magunazelaiak, Ekain Egurrolak eta Mikel Martinezek jaurtiketetan. Ezin dugu ahaztu ezta Mogel ikastetxeko mutilak Euskadiko azpitxapeldegian izatera heldu zirela. Eta ezta Eneko Osoro eta Karlitu Mendy Espainiako txapelketan izan zirela Euskadi ordezkatzen.



Eskozia La Brava eta Esmorga Zeleste: hamar urteko anaitzea ospatzen

Bihar hasiko ditu Eskozia La Brava peña hurrengo denboraldirako jarduerak Esmorga Zeleste Vigoko Celtaren peñarekin bien arteko anaitzeren 10. urteurrena ospatzeko. Ekitaldian izango da baita Eibarren egoitza duen Peña Celtista Eibarzale laguntaldea. Biharko egitarauari dagokionez, 12:00etan harrera egingo zaie Untzagan; handik ordu laurdenera jai galiziarra egingo dute B. Sa-

rasketa kalean dagoen Etxegiña tabernan, olagarro-jana eta riberoa lagun dutela; eta ondoren Untzagara bueltatuko dira, gaita-jolearen erritmora. 15:15ean anaiarte-bazkaria egingo dute Jatorkak soziedatean; arratsaldeko poteoa erdigunetik 19:30ean hasiko da eta, behin gauean sartuta, 22:30ean barrilada egingo dute Gurbil jatetxean eta 23:30ean gaueko jai nagusia hasiko da.

Foball-7 txapelketaren finalerdiak domekan

Bailarako XIX. foball-7 txapelketa azken fasean sartu da eta dagoeneko bakarrik lau talde daude txapela lortzeko borrokan. Lehen fasea amaituta, Raketxe Crew taldeak erakutsi zuen nagusitasun handiena A multzoan; Garito de Alfredo eta Paupérrimo Balón izan ziren onenak B multzoan, Vater de Munich C-n eta Más que Olaso eta EGS taldeak D multzoan. Kanporaketa zuzeneko azken fasea final-zortzirenekin hasi zen eta domeka honetan finalerdiak jokatuko dira: Unben 19:00etan Raketxe Crew eta EGS-ren artekoa jokatuko da eta Mintxetan 20:00etan Vater de Munich eta Más que Olasoren artekoa. Raketxek aurretik Aranda (12-1) eta Bolivas (5-0) kaleratu ditu, EGS-k Aston Birra (3-1) eta Garito de Alfred (2-1), Vater de Munich-ek Papanatas (2-2) eta Paupérrimo Balón (5-3) eta Más que Olasok Jaujar (3-0) eta Kili Rangers (1-0).

Eibar FT eguaztenean itzuliko da entrenamenduetara



*Pedro Leon erdilaria
bi urterako fitxatu
du Eibarrekin.*

Hilaren 13an hasiko du aurre-denboraldia Jose Luis Mendilabarrek zuzentzen duen taldeak eta handik sei egunera, uztailaren 19an (martitzena), jokatuko du lehen lagunartekoa, Irungo Real Unionen aurka. Eibarko taldeak badiu lotuta dagoeneko beste partidu batzuk ere: Real Sociedad B edo Sanseren aurka (uztailaren 22an), Mirandesen kontra (26an), Besiktas turkiarraren aurrean (hilaren 30ean), eta behin abuztuan sartuta, Colonia alemaniarrekin (4an), Leipzig poloniarren kontra

(6an), Realaren aurka (10ean, Kilometroak-en aldeko partiduan) eta Zaragoza aurkari duela (13an).

2016-17ko taldea osatze bidean, bestalde, Amaia Gorostiza presidente berriak zuzentzen duen klubak Lejeune (Gironatik), Ruben Peña (Leganes), Pere Milla (UD Logroñes), Unai Elgezabal (Barakaldo), Calavera (Nastic) eta Christian Rivera (Oviedo) jokalariek fitxatu ditu orain arte, Getafetik bi denboraldirako etorriko den Pedro Leon izen handiko (Real Madrilen jokatu zuen) jokalariekin batera.

Eibarko betereanoen taldeak Ginebran jokaturako torneo bereganatu zuen

Nazio Batuek antolatuta aurreko asteburuan Ginebran jokaturako nazioarteko torneo irabazi zuen Eibarko betereanoen taldeak, finalen Nazio batuen selekzioari 1-0 irabazita. Txapelketan parte hartu zuten ere UEFAko selekzioak eta Stade Nionas taldeak. Eibarko espedizioa honakoek osatu zuten: Guaje, Aitor, Oiarbide, Arrito, Amadeo Bilbao, Mattin Irazoki, Ugartemendia, Gurrutxaga, Oswaldo, Arenaza, Unda, Irazoki, Kruzelegi, Artetxe, Richar, Oliden, Olano, Kike, Muguruza, Ibai, Bixente, Martin eta Roberto Marzanak.



Kalamuakoen agurra denboraldiari

Tolosako Usabal kiroldegian egindako azterketekin amaitu zuten denboraldia Kalamua klubeko kirolariek. Azterketa horiek jiu jitsuko dan 1. mailatik 3. mailara artekoak izan ziren eta Eibartik joandako zazpikoteak (Nekane Muguruza, Hegoi Esteban, Aitor Villalba, Garikoitz del Barrio, Iker Martinez, Mikel Marin eta Julen Ramon) 1. mailako dan-a eskuratu zuten, Manu Agirre partaide izan zen epaimahaiaren aurrean. Eszenategi berean bezperan izandako karateko gerriko beltza lortzeko az-

terketetan, bestalde, Jon Arteagak 2. dan maila eskuratu zuen.

Ondarroako Zaldupe kiroldegian, bestalde, judoko infantil mailako torneo jokatu zen, 155 parte-hartzaileekin, eta hor Julio Gallegok eta Juan Ramon del Barriok gidaturako gazteek hainbat domina irabazi zituzten: Eneko Kortak, Julen Guenagak, Pedro Santamarinak eta Zhe Yi Lin-ek urrezkoak; Alex Jimenezek, Zehao Ye-k eta Xagit Bartolomek zilarrezkoak; eta Yone Ortuostek eta Xuban Aranزابalek brontzezkoak.



Lehenengoko fitxaketak areto-foballeko Debabarreneko lehen talderako

Gasteiztarrak dira fitxaketa biak eta Labastidako Mahastiak taldetik datoz. Axier Molerok postu askotan jokatu dezake eta ondo dominatzen du baloia; Ramon del Campo "Montxo"-k, bestalde, betereanoa da, langilea eta gola duena. Azken horrek, gainera, Euskadiko selekzio absolutoarekin jokatu du. Aipaturakoak azken denboralditik taldean geratu diren Asier, Trevi, Gabi, Javi, Marcos eta Mikeli gehitu behar zaizkie.



MIREN AMURIZA
(bertsolaria)

“Gure eguneroko jarrerarekin ere lagundu genezake”

Gaur Miren Amurizaren “kapulana bat zintzilik” ikuskizunarekin amaituko da Arrate Kultur Elkarteak antolatzen duen Ikus-entzunezkoen Astea. San Andres elizaren klaustroan izango da, 22:30ean. Hainbat arte konbinatuz, bertsolariak izako urtean Mozanbiken izandako esperientzian oinarritutako ikuskizuna eskainiko du. Mundukide Gobernu Kanpoko Erakundeak bere 15. urteurrenean publikoarengana hurbiltzeko Bertsozale Elkartera jo zuen eta horrela abiatu zen Amuriza Mozanbikera. Fundazioak garapen sozioekonomikorako programak bultzatzen ditu bertan, besteak beste.

- Zer da kapulana bat?

Kapulana bat oihal handi eta deigarri bat da, bere estanpatu eta koloreengatik Afrikarrek jasteko, umeak eramateko, etxeak apaintzeko eta beste hainbat kontutarako erabiltzen dituzte. Mozanbiken erosi nuen neurea eta bertan jasotako argazki eta istorioekin dakart ordu bete eta 10 bat minutu iraungo dituen ikuskizunera.

- Emanaldian zer garrantzia izango du oihalak?

Bertatik aterako ditut nire testuak, alde batetik bertso sortak eta bestetik ipuin, hausnarketa eta bestelakoak. De-

na den, ikuskizunean nire irakurketez gain audioak ere tartekatzen dira eta uneoro egongo dira Eider Eibar ilustratzailearen irudi-muntaiak ere irakurtzen dudana bitartean. Ikuskizuna Mozanbikera egindako bidaian dago oinarrituta, dena da han egin baina bertako bizipenak gurera ekarri nahi izan ditut: hango gauzei buelta eman eta hemengo bizi-ohiturara etorri naiz.

- Zer eragin nahi duzu ikusleengan?

Hemendik ematen du ezinezkoa dela Afrika aldatzea. Ezin dugula pentsatzen dugu, eta hala da. Baina ezin badugu ere badaude egin ditzakegun gauza txi-

kiak. Nola lagundu genezaken pentsatu eta horren inguruan hausnartzea bilatzen dut lan honekin. Beti aukera berdinak etortzen zaizkigu burura; dirua ematea, bertaraino joatea, ... baina badaude beste bide batzuk ere. Adibidez, eguneroko jarrerarekin koherenteagoak izanez edota gure egunerokotasunean dauzkagun bestelako gauzei erreparatu: hemen bizi diren afrikarren inguruan nola hitz egiten dugun, zer kontsumitzen dugun, herrialde azpigaratuetara bidaian joaten garenean izaten dugun jarrera, ... hau guztia da kontuan hartu beharrekoa.



Argazki rallyko irabazleei saria

Martitzenean banatu zizkieten sariak Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik maiatzeko azken asteburuan jokatu zen argazki rallyko irabazleei. Koloretan, lehen saria Igor Froilan Aranzamendik eraman du, bigarrena Imanol Menterola Odriozolak eta hirugarrena Patxi Irazabal Campok. Horrez gain, Eibarko onena Zigor Astigarraga Pinedo aukeratu dute. Zuribeltzean, berriz, lehen saria Jose Luis Irigoienek irabazi du, bigarrena Igor Froilan Aranzamendik eta hirugarrena Carlos Romero Bilbaok. Argazkilaritza gazteari saria, berriz, Eneko Zengotita Ramosek eraman du eta, antolatzaileek hala erabakita, umeen artean bi akzesit banatu dituzte, "gazteen artean zaletasuna pizteko asmoz". Marta eta Iban Lucena nebarrek jaso dituzte akzesitak.

Asylum proiektua abiatu da

Unax Blanco eibartarrak Grezian zuzendutako “Refugiados, camino a ninguna parte” dokumentalaren harira Asylum izeneko proiektua sortu dute eta abiapuntua gure herrian, Portalean izan du, astelehenean hasi eta atzora bitartean. Besteak beste Josu Peña argazkilariren “Lotsa” erakusketa egon da ikusgai, eguaztenean solasaldia egin zen Arrate Berasaluze Chiosetik etorri berri den CAREko kidearekin eta martxoan Lesbosen boluntario ibili ziren Ane Ojanguren eta Manu Ledorekin eta atzo, agurtzeko, dokumentalaren proiektua eta solasaldia egin zituzten.





Aurreko barixakuan Amañako danborradakoek jaurti zuten txupinazoa. Leire

Amaña, jaietako bigarren asteburuan

Aurreko barixakuko txupinazoarekin hasi eta domekara bitartean, **asteburu betea izan zuten** Amaña auzokoek, jaiak direla eta, baiña, hala ere, bigarren asteburu bati aurre egiteko prest daude oraindik. Gaur auzoko jubilatuei urteroko bazkaria eskaini diete Unzaga Plaza hotolean. Gauean, berriz, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi izango dira Ipur sagardotegian, Amañako jaietako bertso-afarian. Biak dira goi mailako bertsolariak: Lujanbio Euskal Herriko txapelduna izandakoa eta gaur egun azpitxapelduna eta Gaztelumendi gaur egun Gipuzkoako txapelduna da. Eta, jaiak agurtzeko, domekan Goruntz abesbatzak girotuko duen meza egingo da Amañako elizan.

Lambretta motorren kontzentrazioa

Lambretta Eibar XIII. Kontzentrazioa antolatu dute biharko Eibar Lambretta Klubekoek. Goizeko 09:00etatik 11:30era partehartzaileen aurkezpena eta Lambretta motorren erakusketa egingo dituzte Untzagan.

Ondoren, 11:45ak aldera kalejira egingo dute herrian zehar eta, jarraian, 12:30ean San Kristobal auzora igoko dira. Antolatutako egitarauak gauera arte iraungo du: Mutrikun, Galdonako kanpingean bazkaldu eta oroigarriak banatu eta gero, Eibarrera bueltatuko dira Eibarko Armagintzaren Museora bisita egiteko. Eta, eguna agurtzeko, nahi duenak San Kristobalgo jaiekin bat egin eta kontzertuaz gozatzeko aukera izango du. Domeka goizean, 10:30ean agurtuko dira Lambretta Eibar XIII. kontzentrazioko partaideak Untzaga plazaetik abiatuta.



Goruntz abesbatza Sizilian

Goruntz abesbatzak egun batzuk eman ditu Siziliako uhartean, Catania hirian. Bidaia abesteko ez ezik interes handiko tokiak ezagutzeko ere aprobetxatu dute eibartarrek: besteak beste Siracusako Neapolis auzoa, Etna sumendia eta Taormina bisitatzen egon ziren. Abesbatzak asteburu honetan agurtuko du ikasturtea, domekan 11:00etan Amañan egingo den mezan abestuta. Saltzen ibili diren errifan, bestalde, zenbaki sariduna 1.348 izan da (ONCE-k ekainak 17an egindako zozketan saritutakoaren azken lau zenbakiak).



Sanjuanetako argazkiak etakitto.eus-en

Aurten ere argazki kamera hartu eta San Juan jaietan murgilduta ibili gara, herriko kaleetan gora eta behera, ekitaldi esanguratsuenetan argazkiak egiten. Ekainaren 28an kaleratu genuen Bixamona egun horietako lanaren emaitza da. Baina, hor bildu ditugun irudiez gain, 1.500 argazki inguru igo ditugu sarera, argazki bilduma desberdinetan banatuta. Horiek guztiak www.etakitto.eus helbidean, "Mediateka" atalean ikusgai daukazue.



Kulturaleko lokala itxita

Uda aprobetxatuko dute Arrate Kultur Elkarteko lokalean hainbat konponketa egiteko eta, beraz, beharrak egin ahal izateko, abuztura arte ezin izango dira elkartearen lokalik erabili. Hori dela eta, eragozpenak barkatzeko eskatu dute Arrate Kultur Elkarteko ordezkariak.





LOREA ARAKISTAIN

Izena eta izana

Nazio-markaz eta markagintzaz berba egiteko elkartu ginen duela hamar egun Iruñeko Kondestable Jauregian, UEUko udako programazioaren baitan. Elkartu baginen, elkartu ginen! Eta, elkartu ginenon harridurarako, zenbat elkartu ginen! Euskaldunak ez gaude munduko mapa politikoetan. Hori hala da. Eta, gure burua izendatzerako orduan ere ez gaude ados. Bi premisa horiek izan daitezke nahikoa arrazoi gure marka garatzeko gaitasunik ez dugula onartzeko. Baina, premisa horiek bezain egia berdaderoa da markek balio dutela bereizteko eta nabarmentzeko. Marka ez da logoa, marka ez da izena. Markak emozioak sorrarazteko gai dira.

Izena eta izana, esan ohi da. Izena duena, ba omen da. Izana gauza ederrak egiteko gai den herria izanik, markagintzara begira subjektua izan daiteke eremu geografiko bat edo pertsona-komunitate bat. 'Extraordinary people' zekarren lerroberrura *Washington Postek* euskaldunei buruzko erreportajearen, kasualitatez aipatu jardunaldiaren biharamuneari. Gutaz ari dira. Gu ere aritu gaitzeko. Ezberdintzen gaituenaz, munduari sentiarazi nahi diogunaz. Beharko luke epe luzera, ezberdinen arteko akordioetan oinarrituta eta agenda politikotik kanpo. Izenak ekar dezala izana.

Andrea Gonzalezi saria Alhambra Gitarra Lehiaketan

Andrea Gonzalez Caballero eibartarrak lehen saria eskuratu zuen ekainaren 6tik 11ra bitartean Valenciako Palau de la Musica-n egindako Nazioarteko Alhambra Gitarra Lehiaketan. Bere espezialitatean mundu mailan prestigio handieneko txapelketa da eta aurtengoa 13. edizioa izan da. Andrea Gonzalez-ek Düsseldorf-eko (Alemania) Robert Schumann Musika Konserbatorioan egin ditu ikasketak eta 2014an graduatu zen Joaquin Clerch maisuarekin. Bakarka aritu da Madrilgo Auditorio Nacional-ean, Donostiako Kursaal-ean, Düsseldorf-eko Robert Schumann Saal-ean, Monterreyko Teatro del Centro de las Artes-en edota Centro Hispanoamericano de La Habana-n.

Munduko hainbat jaialditara gonbidatu dute (Hungarian, Mexikon, Kuban...) eta leku askotan jardundu kontzertuak eskaintzen (Madril, Bartzelona, Alacant, Donostia, Iruñea, Italia, Holanda, Alemania, Kuba, Mexiko eta Hungaria). Nazioarte mailako lehiaketa desberdinetan hartu du parte eta 20 sari baino gehiago lortu ditu.



Andrea Gonzalezek nazioarteko maila gorenean dihardu.





Harixa Emoten-erako izen ematea 11tik aurrera

Anjel Lertxundi, Asier Serrano, Joxemari Iturralde, Alaine Agirre, Arrate Egaña eta Pello Lizarralde idazleak izango dira, besteak beste, urritik aurrera Eibarko udal liburutegiak antolatzen duen euskarazko "Harixa Emoten" irakurketa-taldean. Liburutegiak uztailaren 11an zabalduko du "Harixa Emoten" irakurketa-taldean izena emateko epea eta irailaren 7ara arte izango dute horretarako aukera jarduera horretan parte hartu nahi dutenek. Euskaraz izaten diren saio hauetan idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaitzen die, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Hilean behin elkartzeko dira Portaleako Kulturako bilera gelan 19:00etatik 20:00etara eta dohainik izaten da. Saiotara joateko konpromisoa eskatzen da behin izena emanez gero eta solasaldian parte hartuko duen bakoitzari liburua lortzeko konpromesua hartzen du Liburutegiak. Horretarako, aldeztatik izena eman behar da. Izena eman nahi dutenek Liburutegira jo beharko dute, edota telefonoa edo emaila erabil dezakete. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte eta gehien jota 20 pertsona onartuko dira taldean. Gehiago izanez gero, zozketa egingo da.

Asier Serranoren "Linbotarrak" argitara eman dute

Kalean da Xabier Lete III. Poesia Saria irabazi zuen "Linbotarrak", Asier Serranoren liburua. Pamiela etxeak eman du argitara idazle eibartarraren seigarren poesia liburua dena. Aurten "Ate osteko itzalak" lanarekin beste sari handi bat, Irun Hiria eskuratu duen Serranok bi lan hauen aurretik "Destrutuen piztiarioa" liburua eman zuen argitara 2011. urtean.





Erdi Aroko azoka SALLABENTEN

Asteburu honetan, gaurtik hasita eta domekara arte, Sallabente auzoko jaiak ospatuko dira Ermuan. Azken urteetan bezala, Erdi Aroko Azoka egongo da eta bertan egurra, artilea, larrua, espartzua, ardo-zatoak, zintzarriak, bitxiak, landareak, zapatak eta beste hainbat produktu nota lantzen dituzten ikusteko eta, nahi izanez gero, erosteko aukera egongo da. Jateko eta edateko produktuak ere ez dira faltako eta, azoka girotzeko, kalejirak, musika, antzerkia, umeendako jokoak eta ipuin kontalariak izango dira, besteak beste. Erdi Aroko Azokaz gain, egitarau betearen prestatu dute antolatzaileek. Besteak beste, gaur gauetan play-back lehiaketa egongo da 23:00etan eta, jarraian, berbera "Dando la nota" taldearen eskutik. Zapatuko gaua "Kresala" taldeak girotuko du eta domekan, 21:30ean, "Los Versionarios" Ermuko musika taldearen kontzertuarekin amaituko dira jaiak.

SAN ANDRESKO JAIKAK 2016
 Sorraluzen

GAZTREN EGUNA
 OZTILAK 9, ZAPATUA

JAI EGUNA
 OZTILAK 10, DOMEKA

AUZOKUEN EGUNA
 OZTILAK 11, ASTELEHENA

San Andresko jaiak SORALUZEN

Bihartik astelehenera bitartean ospatuko dira San Andresko jaiak Sorraluzen: zapatuan 13:00etan ekingo diote egitarauari, kanpai bueltarekin. Arratsaldeko 19:00etan, Asier eta Iñakiren omenezko XV. pelota txapelketaren finala jokatuko dute, aurtun lehen aldiz, San Andresko frontoian. Afarria 21:00etan izango da, Eibarko Goikoetxea eta Gisasola trikitilari gazteek alaituta (afaritarako lekua egunean bertan hartu daiteke eta ogitartekoak ere izango dira). Eta gaua Fan & Go talde zarauztarrak girotuko du. Hurrengo bi egunetan ohiko egitarauari jarraituko diote: domekan Iñaki Ruizen omenezko V. mendi-lasterketa, meza, puntako bertsolariak, trikitilariak, pelota partiduak eta umeendako zezentxoak. Eta astelehenean meza, umeendako jolasak eta Egaña eta Lizasok Laja eta Lutxurdiorekin batera alaitutako auzotarren bazkaria.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Carmen Pagei Abaitua. 68 urte. 2016-VI-19.
- Federico Santamaria Rodriguez. 67 urte. 2016-VI-20.
- Juan Carlos Gomez Salinas. 54 urte. 2016-VI-20.
- Jose Fernandez Cid. 83 urte. 2016-VI-22.
- Jose M^a Carranza Mendiola. 90 urte. 2016-VI-23.
- Ismael Mier Alonso. 90 urte. 2016-VI-25.
- Juan M^a Bastida Gallastegi. 86 urte. 2016-VI-25.
- Ana M^a Bastida Zaldia. 86 urte. 2016-VI-26.
- Emilio Garcia Fernandez. 85 urte. 2016-VII-2.
- Milagros Arizaga Azpitarte. 102 urte. 2016-VII-5.
- Teresa Gisasola Azkuna. 85 urte. 2016-VII-6.

jaiotakoak

- Christian Eduardo Leon Gomez. 2016-VI-9.
- Zahra Waris. 2016-VI-14.
- Noa Gonzalez Anton. 2016-VI-15.
- Julen Da Silva Gonzalez. 2016-VI-17.
- Ane Lopez Ibarategi. 2016-VI-17.
- Katia Zinkunegi Alarma. 2016-VI-20.
- Magali Arzuaga Ibarretxe. 2016-VI-21.
- Irune Blanco Lopez. 2016-VI-22.
- Jon Sanchez Lasagabaster. 2016-VI-27.
- Eider Cardoso Ramos. 2016-VI-27.
- Lorea Tapia Lauzirika. 2016-VI-28.
- Nikole Urrea Ezenarro. 2016-VI-29.
- Jone Hernandez Esteban. 2016-VII-2.

farmaziak

- Barixakua 8
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 9
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 10
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 11
 EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Martitzena 12
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 13
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 14
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 15
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2016AN-
 Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak..... 112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMATZA

SUDOKUA

4	9	6	3	7	5	8	1	2
7	5	3	1	8	2	4	9	6
8	1	2	6	9	4	7	3	5
9	8	5	2	4	1	6	7	3
1	6	4	7	5	3	9	2	8
3	2	7	9	6	8	1	5	4
5	7	1	4	2	6	3	8	9
2	4	9	8	3	7	5	6	1
6	3	8	5	1	9	2	4	7

8	3			9			4	
				6			7	
1			4		2		3	
								2
6	2	5				9	1	7
9								
	4		6		9			8
	7			4				
	9			1			2	3

Barixakua 8**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

19:00. Jaien hasierako txupinazoa.
19:05. San Kristobal 2016ko auzokideari aitortza: Eibar K.E.ko auzoko koadrila.
19:15. Kalejira, Orkestrarekin.
19:30. Haurrentzako jolasak. Fray Martin Malleako parkean. Dardo txapelketa (16 urtetik beherakoentzat). Tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta banatuko dituzte auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barran.
23:00. Kontzertua: Iron What (Iron Maiden taldearen abestiak).
01:00. Kontzertua: exKISSitos (Kiss taldearen abestiak). San Kristobalen.

AMAÑAKO JAIAK

21:30. Bertso-afaria, Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendirekin, Ipur sagardotegian.

IKUSENTZUNEZKOEN ASTEA

22:30. XXVIII. San Juan Igeriketa Saria, Urbatek antolatuta. Kiroldegian.

Zapatua 9**LAMBRETTAK**

09:00/11:30. Lambretta Eibar XIII. Kontzentrazioa. Aurkezpena eta Lambretta motorren erakusketa. Untzagan.
11:45. Kalejira, herrian zehar, izena emandako guztiek.
12:30. San Kristobal auzora igoera.
13:00/14:30. "Ruta Lambretera" irteera.
14:30. Bazkaria, Galdonako kanping-ean (Mutriku).
16:00. Sari banaketa.
18:00. Eibarrera buelta.
19:00. Eibarko Armagintza Museora bisita.
21:00. Txikiteoa, Eibarko tabernetan. 60. hamarkadako musikarekin kontzertua.

SAN KRISTOBALGO JAIAK

10:30. Haurrendako marrakzi lehiaketa. Partehartzaile guztientzako opariak eta sariak irabazlearentzat.
11:30. Haurrentzako Molto motorren kontzentrazio-lasterketa. Partehartzaile guztientzako opariak eta sariak irabazlearentzat.
12:15. Herri "sandiada". Aizarnako parkean.
12:30. Lambretta motorren XIII. Igoera San Kristobalera eta hamaiketako parte-hartzaileentzat. Lambretta

motorren erakusketa San Kristobalgo plazan.
18:00. Igel-toka txapelketa (16 urtetik beherakoentzat).
19:00. Dardo txapelketa nagusientzat.
19:30. Dominguez Mariatxiaren kalejira.
21:00. Herri-afaria, plazoletan, Nuria&Sofiak girotuta.
22:45. Dantzaldia, Drindots taldearekin.
00:00. Kontzertua: Elsa Baeza.
01:00. Dantzaldia, Drindots taldearekin.
03:00. Txokolate-jana. San Kristobalen.

ESKOZIA LA BRAVA

12:00. Eskozia La Brava eta Esmorga Zeleste peñen anaitzearen 10. urteurrena. Harrera Untzaga plazan.
12:15. Galiziar jaialdia: olagarro jana eta Riveiro ardoa. Etxegiña tabernan.
12:30. Urkizutik Untzagara igotzea, gaita-joleak lagunduta.
15:15. Bazkaria Jatorrak elkartean.
19:30. Txikiteoa erdialdeko tabernetan.
22:30. "Barrilada", Gurbil tabernan.
23:30. Jaialdia.

PILAZOAK

18:00. Pailazo-ikuskitzuna. El Corte Ingleseko terrazan.

Domeka 10**LAMBRETTAK**

10:30. Lambretta Eibar XIII. kontzentrazioa partaideen irteera Untzaga plazatik.

AMAÑAKO JAIAK

11:00. Meza, Goruntz abesbatzarekin. Amañako elizan.
SAN KRISTOBALGO JAIAK
11:00. Ohe elastikoak eta tirolina Fray Martin Malleako parkean.
12:00. Hildakoen aldeko meza.
12:00. Marmitako txapelketa, plazoletan.
13:15. Luntxa plazara joaten diren guztientzat.
13:45. Irabazleei sariak banatzea.
17:30. Freskagarriak eta goxokiak haurrentzat.
18:00. Gorixoren zezentxo eta pony-ak.
19:00. Marrakzi lehiaketan eta jolasetan parte hartu dutenei sariak banatzea.
19:30. Festa, DJ Arabarekin.
20:00. Errifaren zozketa.
21:30. Jai amaierako traka.

zineaColiseoan**(1 ARETOAN)**

9an: 17:00, 19:45, 22:30
10ean: 17:00, 20:00
11n: 20:30

"Un doctor en la campaña"

Zuzendaria: Thomas Lilti

**(2 ARETOAN)**

9an: 17:00, 19:45, 22:30
10ean: 17:00, 20:00
11n: 20:30

"Si Dios quiere"

Zuzendaria: Edoardo Galfone

**(ANTZOKIAN)**


9an: 17:00, 19:45, 22:30
10ean: 17:00, 20:00
11n: 20:30

"Mi amigo el gigante"

Zuzendaria: Steven Spielberg



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MAIALEN!, ekaiñaren 28xan sei urte bete zenduazena-eta. Patxo handi bat etxekuen partez.



Zorionak, ARRATE, ekaiñaren 30ian 10 urte egin zenduazena-eta. Jarraitu holakua izaten. Etxekuen partez.



Zorionak, JOKIN, martitzenian 9 urte bete zenduazena-eta. Jarraitu horren jatorra izaten. Musu handi bat.



Zorionak, MIKEL!, atzo sei urte bete zenduazena-eta. Musu pillua zure famelixa, Ander, Gorka, Lur, aitta eta amaren partez.



Zorionak, ANETTE, haraiñegun lau urte egin zenduazena-eta. Laztan handi bat famelixakuen partez.



Zorionak, LIER!, atzo sei urte bete zenduazena-eta. Besarkada eta musu handi bat famelixaren eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, EKHI eta PAULE!!, zuen 8. eta 6. urtebetetzian!! Irribarre zoragarri horrekin jarraitu, laztanak!!



Zorionak, MIKEL eta NAGORE. 6 urte!! Oso ondo pasau eguna, bikote!! Familia osuak asko maitte zaittue. Asteburuan ospatuko dogu!



Zorionak, bikote!! Julixuaren 4an NAIak zazpi urte bete zittualako eta 5ian JONEk bi urtetxo. Patxo handi bat famelixaren partez.



Zorionak, LUR eta IZARO, aurreko zapatuan zazpi urte egin zenduezena-eta. Musu handi bana etxekuen partez.



Zorionak, KEPA (domekan zazpi urte egingo dozuz) eta JOSU (hillaren 15ian hiru urte). Segi holan, txapeldunak! Etxekuen eta, batez be, ANDER-en partez.



Zorionak, IRATI eta IZARO, zuen bigarren urtebetetze egunian. Maitasunez, famelixaren partez.



Zorionak, AITOR eta MIKEL, egun hauetan urtiak beteko dozuez-eta! Etxekuen partez!



Zorionak, MAIDER (11 urte) eta NORA (bost urte) ekaiñaren 15ian urtiak egin zenduezena-eta.



Zorionak, ALAITZ, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Musu bat famelixaren eta, batez be, Naiaren partez. Ondo ospatu!



Zorionak, ANER!, martitzenian etxeko piratak sei urte egingo dittu-eta. Musu asko famelixaren eta, batez be, Urkoren partez.



Zorionak, LUKEN! gaur urtetxua egitten dozu-eta. Musu handi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AMAIA, gaur 10 urte egitten dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE (sei urte egingo dozuz hillaren 12xan) eta OINATZ (hiru urte abuztuaren 9xan). Laztan handi bana famelixakuen partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Bastidan etxea salgai. 3 logela, jangela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Berriztuta. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Aukera ona. Tel. 617-323246. Itziar.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ermuan, Iparragirre kalean. Berriztuta. Tel. 615-706548.
 – Pisua behar da alokairuan. 500 eurotik behera ordaintzeko prest. Tel. 628-235319.
 – Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta terraza handia. Kafefakzioa eta igogailuarekin. 480 euro + komunitate gastuak. Tel. 669-682148. Asier.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 602-120839.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 450/500 euro bitartean. Tel. 632-569245.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-330218.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Lan-kontratua dut. Tel. 666-060799 eta 666-988946. Naiara.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilatzaioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.
 – Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Tel. 647-615265.
 – Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 648-039187.
 – Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 602-057185.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 610-934835. Odali Fernanda.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 602-123860.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Orduka. Tel. 673-538021.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-932444.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrietan lan egiteko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 632-131800.
 – Neska eskaintzen da pegorak edo tabernak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-790555.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 603-743240.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562380.
 – Administrazio-ikasketak eta lan esperientzia duen neska eskaintzen da alor horietan lan egiteko. Baita umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko ere. Tel. 632-480108.
 – Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-400915.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez edo gaez. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-677035.
 – Neska eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 688-959575.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
 – Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gaez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 602-141712.
 – Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gaez ere). Orduka. Tel. 628-014327.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-037575.
 – Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-796239.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Prestasun osoa. Tel. 631-343232.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-748531.
 – Mutila eskaintzen da arotz edo margolari moduan eta etxeko lanak egiteko. Tel. 609-154358.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-699668.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 628-738472.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.
 – Emakumea eskaintzen da asteburuetan eta gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 638-544358.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 722-396233.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-811267.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko etab. Tel. 692-345215.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-810654.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 612-200806.
 – Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 637-191397.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-215907.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 658-212373.

4.2. Langile bila

– Kamarera behar da Eibarren. Tel. 665-308025 eta 674-543564.
 – Psikomotrititate edo fisioterapia ezagutzak dituen pertsona behar da ume batekin lan egiteko. Tel. 615737483. idatzihona@gmail.com
 – Pertsona behar da ingelesez hitz egiten duen Egiptoko familia bati gaztelarazko klaseak emateko. Lehen bi hilabeteetan intentsiboki hasi eta Gabonak arte. Tel. 680-976385.
 – Esperientziadun pertsona behar da bidaiaria agentzia batean lan egiteko. Bidali curriculum-a: admin@viatgespoblenou.com
 – Ileapaintzailea behar da Elgoibarko San Lazaro egoitzan. Tel. 943-740296. Monika edo Itziar.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko, DBH 3. mailako liburuak saltzen ditut. DBH 4. mailako liburuak erosi nitzuke. Tel. 653-705096.
 – HDMI DVD MP64 bat saltzen dut, DUB-T COMBOarekin. Berria. 12 euro. Tel. 943-120030.
 – Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Audifonoa galdu nuen ekainaren 21ean edo 22an. Norbaitek topatzen badu, Udaltzaingoa laga edo deitu. Tel. 943-701614 eta 656-758793.

6.4. Bestelakoak

– Alfonbra (zabalera: 1'99 eta luzera: 2'93) eta josteko makina (Alfamatic 109 modelo) salgai. Ia berriak. Tel. 943-702167.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Matrikula

uztailaren 11tik 15era

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

**GOI
MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK**

2016-2017



Koopera Store

USED CLOTHES FEELING YOUNG

Alkandorak
6€-tik aurrera

KOOPERA STORE BERRIA
ZULOAGATARREN 5



Baldintza bereziak.

EGAZELAI,
Babes Ofizialeko etxebizitzak
%90ARTEKO FINANTZIAZIOA

Baldintza ezinhobeak
etxebizitzarako maileguan.

Informazio gehiago Errebal 9an, EIBAR.

Telefonoa: 943 20 39 40